

Inazio Lazkano Roteta

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1924-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Antxunarrutegi baserrian jaio zen, Abendaño inguruan. Baserritik kalera aldatu ziren. Aita izan zen Basa-Lore baserria eraiki zuena, Santa Barbara auzoan, eta txakolinaren negozioari ekin ziona. Harrezkero bertan bizi izan da, eta oraindik ere jarraitzen dute txakolina egiten.

Zintak

ZAR-010

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2004-12-22
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Umetako bizimodua; nola egin zuten baserria

- **Erref:** ZAR-010/002
- **Iraupena:** 0:08:52. **Hasi:** 00:00:58. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Baserria non zegoen. Berak hiru urte zituenean kalera joan ziren. Aitak non lan egiten zuen. Zuen jornalarekin ez zuten nahikoa eta lur-saila erosi zuten baratzea jartzeko. Gerora baserria bertan egin zuten 1930 inguruan: "Basa-lore". Izena nondik jarri zioten.</p>

2. Ingurua nolakoa zen

- **Erref:** ZAR-010/003
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Inguru hura nolakoa zen. [Arkamorka?] eta sasia eta sagastia zegoen azpialdean. Sagasti asko zegoen. "Gillermo alemanak" erosi zituen terrenoak inguruetan eta sagardoa egiten zuen. Geroago aitzurtu egin zituen lurrak eta fruta-arbolak jarri.

3. Nola hasi ziren txakolina egiten

- **Erref:** ZAR-010/004
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:11:49. **Bukatu:** 00:13:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Mahatsarekin etorri zitzaien etorkizuna. Nola hasi zen bere aita txakolina egiten. Zenbat urtean itxaron zuten emaitzak ikusteko.

4. Txakolina

- **Erref:** ZAR-010/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:17:00. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aitak lehendik bazuen txakolinaren inguruko ezagutza, Antxurtegi bere baserrian ere egiten baitzuten. Inguruetan beti ezagutu dute txakolina. Mutikotan aitzurran egitera joaten ziren auzora eta dirua ere irabazten zuten.

5. Baserriko bizimodu gogorra

- **Erref:** ZAR-010/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ganadua ere izan zuten. Azpeitiko feriatik behia nola ekarri zuten oinez kontatzen du. Behiak gobernatu ondoren joaten zen aita tailerrera lanera.</p>

6. Zarautz inguruan mahastiak non zeuden

- **Erref:** ZAR-010/008
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:22:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Txakolina non egiten zen. Zarautzen leku askotan zegoen mahatsa. Hainbat inguru aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta mahastiyak eta txakoliña ta hemen inguruan bakarrik izaten da, ez? San Barbara inguruan... edo Zarauzko beste inguru batzuetan izan da?

- Zarautzen mahasti asko zan gu umiak giñan garaian.

- Bai? Kalia eta be bai?

- Bai. Hemen Balentzi aldea beittu, kanposantu pasa ta Kuliñeko mahastiya zan. Ta geo Balentzira iya ailleatu, Balentziko terrenoa Munoako zea horta, Pepena. Errota Zaharren 'e bazan, Antxurrutene 'e bazan, Etxetxon ta hoittan 'e zeoze bertan bazan, Ittulazanen 'e bai. Ta hemen behera zean berriz, kanposantutik behera, Pantolingua ta hasieran Salbirek [...] zuan. Geo bestia bazun Alfa alde hartan 'e, bazun Pantolingua. Ta hemen zea Makatzaneko baztar hortan [...] ta hoiek 'e bazituen mahastiyak; mahastiya asko. Muntxiyon berriz, Muntxiyon baatz asko zan.

- Baatza gehio?

- Bai. Ta hemen eliz punta hontan 'e bai. Hor 'e Kirkillek [...], ta oain Xantarbak daka parte bat hor baiña, hor mahastia, ez dakit nun dan. Pantolingua 'e bazun hor zean, Vista Alegrea tartian mahastiya, abonatua o zea ikusi gendun guk baiña, ezautu gendun baiña. Geo hurrena berriz, oain Vista Alegreko obrak ta daude iñak baiña, hor 'e Alleme izandakua o Rokek hor zun mahastiya, geo.. Izagirrek. Klaudio Izagirren andria Alleme kasta zan ta nola o hala ba, mahastiya zun hor 'e. Ta azpikaldian 'e, Malderreneko zeatik hasita tarte hortan 'e, paeta gaiñian, bi zea arku earrak zian. Mahatsa toki askotan.

7. Mahatsarentzat erabilitako botikak

- **Erref:** ZAR-010/009
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:22:36. **Bukatu:** 00:25:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Mahatsaren gaitza sartu zenean produktuak behar izan zituzten. Sulfatoa erabiltzen zuten. Likidua prestatzen ari zirenean paperezko zinta batzuekin kontrolatzen zuten karearen neurria. Gerra denboran izan zituzten arazoak.

8. Txakolinaren prozesua I

- **Erref:** ZAR-010/013
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:36:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Txakolina nola egiten den. Prozesua. Lehenbizi mahatsa heldu behar da. Mahatsa bildu ostean itzaletara eraman, freskurara. Txakolina poliki fermentatu behar da. Txakolina berotzen denean mikaztu egiten da.</p>

Transkripzioa

- Ta, txakoliña nola egiten da?
- Txakoliña? Mahatsakin.
- Baiña, nola? Zein izaten da, nola, batu eta prozesu guztia esplikatuko dezu?
- Bueno, mahatsak heldu in behar izaten du aurrena. Zenbat eta helduo, nik nahio mahatsa. Ta mahatsa heltzen danielan ba, igual denboaldi txarra o zeatzen badu ustelegi o jotzen du ta, hor, hor saiatsu in behar izaten da, ya azkenengo zea hori apurua izaten da, ze giro dan ta, egualdi ona eukitzia hobia da. Ta bitu, bitu, bat bitu da, ta bestia mahatsa tratatu. Mahatsa konparaziyoa, behin bildu ezkeo nik esaten det etxea, itzalea, itzalian prexkuran mahatsa, ez zea, bildu ta euzkitan, zea kajetan. Etxea ekarri ta prexkuran, [...]. Geo, hori ez da beotzen, itxea ekarri ta, ya itzalian, kajetan ta. Geo kaja oso ona da zea, mahatsa eukitzeko.
- Bai?
- Lehen garai batian lepa-otarretan zeatzen zian, ta eitten zan pillia haundiya, igual hirurogei kiloko zeak igual, otarrakak eo gehiokok 'e igual. Ta mahatsa heldu [...] salda zaiola zean ta. Geo hala euzkitan ta eukitzen bazan eitten da beotu ta fermentatzea juten da. Mahatsak ez du fermentatu behar nereikiko txakoliña itteko. Txakoliña 're ya tolaretik ateatzeko ez badek ondo tratatzen beotu ta fermentautu eoten da. Ta fermentaziyua ekarri behar du lasai. Oain txakoliñai, eitten danielan barriketa zeatzea ta hotza jartzen zaio. Bai, ez da hemezortzi bat gradutik behera o gora zeatzen, epeldueazten, handik behera zeatzen da, eukitzen da.
- Poliki fermentatzeko?
- Bai. Ta hola eoten da ba, ze esango dizut nik, hillebete o bi o, behiñ 'e berotu gabe, bero handiik gabe. Irakitiak eta itten ditu baiña irakite hotza, [...]. Bestela guk lehen txakoliña barrikan sartu ta irekiten zan denboan barrikari hola eskua jarri ta iya ekonomikan jartzen bazendun bezela berotzen zan, e!
- Bai?
- Bero-bero, e! Ta hoi itten da, mikatz-mikatz-mikatz itten da, hainbesteaiño beotzen danielan. Horreatikan zian bodega hotzak eta hobiak. Ta piskaka-piskaka ikusi det geo hotzan zea hoiek eta, jarri giñuzen ta oain tenperatura, ba, zaitu itten degu.

9. Txakolinaren prozesua II

- **Erref:** ZAR-010/014
- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 00:36:46. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Txakolina bildu ahala itzaletara eramaten dute eta lekua badago bertan egunean estutu. Mahatsa berotu ez dadin zaindu behar da. Dolarea: nola funtzionatzen duen. Barrika bete ostean produktu bat botatzen zaio lodiena dena hondora joanarazteko.</p>

Transkripzioa

- Eta, mahatsa jaso eta kajetan orduan gordetzen dezue?

- Bai. Gorde ez!

- Baiña itzaletan...

- [...] Bildu ahala, e, ba, kariatzen; euzkitan ez euki mahatsik, hartu ta itzalea.

- Eta bertan egunian estutu edo...

- Ta tokiya badao ta... Estutzeko ez da hainbesteaiñoko presa. Bai, seittun hasten dia ya joaldiya itte o zea baldin bada. Bi joaldi ta hiru igual itten da, ta beste joaldi bat sobre badao igual hurrengo euneako igual uzten da. Gauza lasai hartu behar izaten du, ez dao. Jendia gehio baldin badao biltzeko ta, pixkat aurreratzen bada, kajan ondo eoten da. Berroeita zortzi ordu kajan batzeko ez dao kuidadoikan, fermentatu ezian. Ta mahatsa tratu onian baldin badabil, puskatu gabe ta, ondo baldin badabil, ba, mahatsak aguantatzen du. Ta txarra pilla haundira zeatu, otar haunditan ta jarri ta, pixkat mastriatu ta berotu ta...

- Zapaldu...

- Hoiiek dia txarrak. Ta geo 're, ba, geo 're ba, hotzakin ta, [...] berotu gabe ta [...].

- Eta, estutu, tolarian estutu, eta gero zuzenian barrikara? Ero nola eiten dezue?

- Hoiiek automatikuak dia, ikusiko dittugu geo nahi baldin baezue, ezta holako... laixte, ikusiko deu. Tolaria dao oain menbranakin. Horrek itten du labadorak bezala itten du, zea, programa jarri... bai. Lehenbiziko zea izaten da, mahatsa botatzen dezu espaldilladora. Espaldilladorak sustarra, orbela o zeoze zikiña etorri bada, dana fuera, dana garbitu itten du, ta alia ta likidua sartzen da zean, tolarian. Tolaria zilindro zea da ta, barrika bezela, ta hua bueltaka ibiltzen da. Bere saria du ta sarian likidua zeatzen dun bezela, likidua bandeja eroitzen da ta, seittuan, seittun barrika jartzen da hua. Bandeja bete ahala ematen zaio bonbai ta, bonbai eman ta, bandeja juten da. Eo zeara juten da, barrika bandejatik. Ta geo ez da hori bakarrikan. Ya barrika betetzen dezu ta eitten zaio [...] o zea hori botatzen zaio hor. Hori azukre erria o da. Ta horrek itten du zeatuazi, ondua [...]. Loriya erteten du horrek, zeatikan, tolaretikan, ta eitten dio patsa o zea...

- Zikiña?

- Bai, bai, zea, loriya hori ondoatuazi, ta eitten da gaiñeko zea kendu, gaiñeko hori jaso, beste barrika, releatu, ta ondua bota itten da. Ta itten du irakitia o prozesua itten du edari garbiyak, ez zea, lehen itten zan bezela, zea, tolarian nola-hala zeatu ta... Nik, Pantolingon tolaren ta haietan 'e ibiliya na ni, zea, mutilla, eliz puntako mahatsa biltzen ta. Nire koiñau zanak euki zun parte bat eta Ttenttek 'e bai ta, hoiien mahatsak biltzen ta, ailleatzen nitzan ni mutil gaztia. Ta, Pantolingo tolaria tolare earra zan, zurezko tolaria, zea luze bat zun, estutzeko lizar trongo luze bat, ta hiru-lau laun jarri puntan ta haei estutzen ta, bastante azkar gaiñea estutzen zan. Oso tolare earra zan.

10. Inguruetakoko dolareak

- **Erref:** ZAR-010/015
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:40:47. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Non zeuden dolareak lehenago; asko ziren inguruetan. Bera mutikoa zela jarri zuen aitzak dolarea txabolan. Normala izaten zen etxe gehienetan dolarea izatea. Auzoa zerbitzatzen zuten dolare hauek. Errotetan moduan, eguneko hainbeste kentzen zuten dolarezaleek.

Transkripzioa

- Hemen inguruan zenbat zeuden? Tolare asko zegoen hemen inguruan?
- Hemen tolariak asko garai batian. Antxuninian oandik 'e hor daola aittu det, ta Manuel Mariñian ta, Xuaxolanian ta, tolariak toki askotan. Hemen goiko basarri hortan 'e bazan. Gu aurreneko horrea hasi giñan sagarrakin ta, sagardua eitteko ta, goiko basarrira, baiña belaxe zeatu zun, moldatu zun gure aitta zanak zea, tolaría. Oaindikan tolaría hor dao, jasota dao, lehengua.
- Orduan bertan, e, hemen, e, zeure etxian?
- Bai geuk 'e jarri gendun tolaría o, bai, ni mutil koskorra nitzala aita zanak jarri zun tolaría. Dalako behia jarri zuneko hartan, txerriyak eon zianeko zea hartan, hau itxi in zunen, tolaría jarri zun.
- Txabolan?
- Bai. Tolaría, erropak garbitzeko alberga, ta berdurak garbitzeko askaa zian hor. Oain ez, oain danak kendu zian. Gauzak modernizatzen ai dia oain.
- Normala zan hori etxe bakoitzian, e, tolaré bat izatia, ero?
- Ez, ez zan danetan izaten, baiña toki askotan bai. Basarri askotan, nola o halakua tolaría sagardua, itxeako, sagardua toki askotan iten zan. Bai, auzua zerbitzatzen, etxian ez bazan. Pantolingo tolarían 'e txanda eoten zan. Pantolingo tolarían 'e mahats denboa zanian, Pedro Alleme ta hoiek 'e ez zuen zeaikan. Hoiek mahastiyak bazittuen ta ez zuen tolaréikan, ta Pantolinguanian [...] zittuen. Hor herri jirako zea hoiek, [...] zea hauek eta, Montxiyoko mahasti hoiek eta, danak horrea zeatzen zian. Ta hoiek errotak laka kentzen zun bezela, ba, ehuneko honenbesteko bat, zea, [...], nik ez dakit ze kondiziyo, baiña zeak, tolaré zaliak zea kentzen ziyoen, laka bezela txakoliña, mustiyua.
- Mustiyua ero txakoliña?
- Mustiyua da txakoliña.
- Bai, baina...
- (Emaztea) Zikiña.
- Bai zea, tolaréтик ertetzen zan zea hua, ta barrika bat eoten zan ta, Pantolingoko zeak iten zun mahastizale batena ta bestiena ta bestiena ta bestiena, jata bukoia bete arte, danakin eitten zun. [...] eun batian betetzen, ya kenduz bete zula, batai ta bestiai ta, proportziyuan, nik ez dakit zenbat ontzi bete zittun o, zenbat iten zun ta hori, baiña. Hori bai, hori aittua dakat nik nola zeatzen zuen, ta nola kentzen ziyon orai hori, ta hori barrikan sartzen zula.

11. Mahats-biltzea

- **Erref:** ZAR-010/016
- **Iraupena:** 0:04:37. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:48:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Mahats-biltze egunean, dolarean estututa jarri eta ondoren afaria prestatzen zieten laguntzera joandakoei. Mahats-biltzea nola izaten zen. Familiakoak etortzen ziren laguntzera. Bi egun pasatzen zituzten mahatsa biltzen. Zein garaitan biltzen den.

Transkripzioa

- Joxe Kojua ta egon ohi zian zea, guarda gu giñan garaian, hua eukitzen zun. Ta beti zea itten zan, eun handiya izaten zan mahats bitzeko euna. Ta gabian tolarea, Pantolingo, hor, horrea tolarea, ta afaia ematen zuen. Aurrena hankakin itten zan, txisti-txasta, txisti-txasta, ta hantxe, kontu batzuk esan ta, izerdi batzuk atea ta, jo in behar izaten zan, mahats asko baldin bazan saio haundiya ta. Geo afaia ekartzen zuen. Oaintxe, zean jartzen gendun, tolarian ya estututa jartzen gendun, estutualdi bat ematen giñun, ta berriz beste estutu aldiya prepaatzen gendun, ta berriz estutzeko prepaatzen zan garaian, pixkat estutu ta afaia. Olaarru zopa o zeoze holakua aurretik, ta geo xerrak eta piperrak eo. Ba, gauza hona itten zan, bai, gu gustoa juten giñan.

- Mahatsan lanak, eta...

- E?

- Mahatsan lanak, e, biltzia eta estutzia eta, hori auzo-lanian izaten zan?

- Danetik...

- Danetik.

- Danetik. Segun, ze amistade zaukan ta, ze familiya zauken ta. Gu geu etxeko parientetasunakin ta hola ibili izan giñan.

- Nahikua izaten zan.

- E?

- Nahikua.

- Lehen, bai. Bitzen gendun. Ya etortzen zian, aman jaiotetxeak etortzen zian ta. Geo, esan deana, Txilikuk o zea, hoiek 'e eliz puntan euki zun ta arreba gendun hara ezkondua ta, haiek 'e etortzen zian ta hola alkarrekin bildu gendun zea, hemengo mahastiya. Oain, oain beste modu batea. Oain, hazi 're in dia ta, jende gehio 're behar da ta.

- Lehen zenbat denbora behar izaten zenuten biltzeko?

- Ba, bi egun ta pasa izan ginun, e.

- Bi?

- Bai, pasatzen giñun. Hiru milla metro, baiña geo itxe jiran e, zeoze, [...] pixkat 'e izaten zan ta, denboa juten zitzagun, segun zenbat mahats zan. Beti ez zan igul izaten.

- Ta noiz izaten da hori gutxi gorabehera? Noiz izaten da biltzia?

- Bitzia? Hoi beti diferentia izaten da. Aorren bildu [...], urriñ 'e askotan.

- Agorren 'e bai, e?

- Bai, agorren 'e bai ta urriñ 'e bai. Ta urriya pasata 're, azarun aurrenien 'e bai, noiz o noiz.

- Bai, e?

- Bai. Ez da hori... Ze giro dan ta, heldu in behar izaten du. Hori ez da zea, mahatsa heldu gabia bitzen baezu [...] ateako dezu zeoze, ez txakoliña eateko moukua ateako.

- Eta eguraldi onakin edo txarrakin edo nola izan behar da? Beti eguzkitan, edo... ahal dana?

- Tokatzen dan bezela in behar. Estuatzen danian, behin heldu ezkeo, giro txar askuakin 'e jarduten dia ta, ez dia gustoa jarduten baiña, bitzeko garaya etortzen denian bildu in behar. Bai, lasai baldin badabil ta iruitzen bada, "eguraldi txarra zio ta gaur utzi ingo zioau" ta. Ein zuen aurten 'e, ebi onak zeatu zitzaion ta, "ez zio [...] ta, berriz 'e egualdi ona etorriko

dek" eta egun bat laga zuen. Geo, bitzen bada, tolariak 'e lan asko ematen du, pixkat aurreatzen bada, ordenatzia-re behar beharrezkoa da. Txakoliñan traslauak ta gauzak eta denboa eamaten du. Bonba onak eta jarrita daude baiña, ein in behar izaten da. Hauek lo gutxi itten due, e! Nik, ni libre nao baiña badao hemen ein behar izaten duna, ta saiatzen da, ta baliyo du, ta gustoa nago.

- Bai?

- Bai.

- Txakoliñ ona?

- Bai, txakoliña. Txakoliñakin gustoa nao. Proatuko deu.

12. Bide-egitea auzolanean; auzokoen arteko harremana

- **Erref:** ZAR-010/018
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:50:53. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Lexikoa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bideak noiz egindakoak diren. Mutikoak zirenean auzokoen artean egiten zituzten bideak, ogia eta ardoaren truke. Galtzada askatu eta harria jartzen zuten. Lan horri "danda" deitzen zioten. Lehenago garaiekin konparaketa egiten du. Lehenago auzokoak hobeto

13. Baserriko bizimodua: abereak eta baratzea

- **Erref:** ZAR-010/019
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:58:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Izan zuten lehenengo behi pareá. Aitak uztarriak egiten zituen. Behien inguruko pasadizoak kontatzen ditu. Mendi zati bat ere erosi zuen aitak eta luberría egin zuten. Lehenbizi patata hartu zuten, gero arbia erein zuten. Garai batean antxoa botatzen zioten arbiari.</p>

14. Gerrara joan zeneko kontuak

- **Erref:** ZAR-010/020
- **Iraupena:** 0:05:48. **Hasi:** 00:58:58. **Bukatu:** 01:04:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerrara joan zeneko kontuak. Urtezahar egunean abiatu zen; eta, Norteko trenean zihoala, txokea izan zuten tunel mutur baten kontra. Ferrolera joan ziren. Nolakoa izan zen bere hasiera soldaduskan. Geroago, Crucero Canarias ontzian enbarkatu zen. Bi kanoi handi zeramatzen eta haiek lehertzeko beldurrez egoten zen. Bere osaba baten bitartez, Bilbora joan nahi izan zuen ministro batekin lan egitera. Instantzia egin zuen, baina ezezkoa eman zioten.</p>

15. Mahatsaren prozesua

- **Erref:** ZAR-010/023
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:07:43. **Bukatu:** 01:10:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Martxoa-apirila aldean hasten da mahatsa ernetzen. Batzuetan [ailendu] egiten da eta beste batzuetan loratu. Beharrezkoa izaten da loratzeta; lorea erne aurretik usteltzen bada, edo ailentzen bada, ez du balio.

16. Txakolina saltzea

- **Erref:** ZAR-010/027
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:15:04. **Bukatu:** 01:18:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Txakolina botiletan saltzen zuten. Probatzera etortzen ziren Donostiatik lehenbizi eta gero bukoia bat bi-hiruren artean hartzen zuten. Botilaratzeko garaian laguntzera etortzen ziren eta beraiek eramaten zuten sagardoa. Pasadizo bat kontatzen du, erosle bat.</p>

17. Txakolindegia eta sagardotegietako giroa eta ohiturak

- **Erref:** ZAR-010/028
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:18:36. **Bukatu:** 01:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Zarautzen bertan tabernetan baino gehiago txakolindegietan edaten zen. Txakolindegia asko zeuden Zarautzen orduan. Sagardoarekin ere berdina izaten zen. Kuadrillan joan arren, batek atera eta besteei pasatzen zien. Sagardotegi eta txakolindegia inguruetan arrain usain ederra egoten zen.</p>

18. Zarausko usainik onena non sortzen zen

- **Erref:** ZAR-010/029
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:21:00. **Bukatu:** 01:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Non egoten zen Zarautzen usainik onena; plaza inguruan: Sukiak kafea erretzen zuen, Rotetak ogia egin eta Klaranean txerria hil eta odolkiak egiten zituzten. Sukia, jatorriz, kanpoko zen, amerikarra.</p>

19. Mahats-klaseak

- **Erref:** ZAR-010/031
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:24:37. **Bukatu:** 01:26:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Mahats-klaseak. Txakolin beltza ardo beltza da. Bazuten ardo-mahatsa ere lehenago, baina ez zen behar bezala hazten eta aitak txertatu egin zuen.

Transkripzioa

- Eta, e, txakoliña eiteko mahatsa zer da beti, beti klase bera ero klase diferentia?
- Bai, txakolin-mahatsa, txakolin-mahatsa, [...] beltza ta [...] txuiya, hoik dia hemengo txakolin mahats natualak. Geo beste bariedaden batzuk e sortzen dia, baiña, en general gutxi, izaten da handikan. Nik ez dakit ze klase o zer zan, baiña mordo haundi bat 'e ixaten zan, hola, oso mordo errotua, beltza. Hoi nik ez dakit ze klase ixango zan, handik 'e pixkat ixaten zan, gutxi 'e!
- Txakolin beltzik eiten da?
- Txakolin beltza? Ardua da beltza. Bazan gurian ardo-mahatsa, baiña bihatzak 'e beltz-beltz-beltz eitten zituna, e! Mahats alekua lehertzen bazan, bihatzak o, bihatzak 'e tinta bezala zeatzen zun, belzten zizun, bez-more, bez-more, ta ardua ona eitten zan. Beheko, zean, tokik onian 'e zan ta, gero txertatuta ta abar ta, dana aldatu in zian. Asko ematen zun ta zeatu in zan, dejeneatu o, zeatzen zala, ale ttikiya ta, nik ez dakit ze itten zun.
- Gaitzen bat o?
- Ondo... Ez, bestela... Eo gehio jo, o zeoze pasatzen zitzaion hari, ez zun behar bezelako fruta ez zun hazten azkenean, ta txertatu in zun gure aitta zanak, ta bastante ondo hartu zion txertuak. Ta hala oraindik 'e bakarren bat egongo da hamentxe. Itxian ondón dagonak 'e zepa, behekoa, ardo-mahatsa du, ta oso txakoliñ-mahats, txertauta dao ta, mahats zuriya oso earra ematen du.

20. Txertatzeak

- **Erref:** ZAR-010/033
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 01:28:29. **Bukatu:** 01:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txertoak nola egiten diren: brea eta argizaria eta nahasten dira. Botikaren funtzioa egiten du. Arbola mugitu aurretik egin behar izaten da mendua. Abuztuan ere egiten dira menduak. Txertaketak bere garaia izaten ditu. (moztu egiten da)

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com